BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

266

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 15ekoa, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariarena, zeinarekin jendaurreko informazioaren izapidetik pasatzen baita ondoko dekretu-proiektua: Euskadiko Osasun Sisteman pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko deklarazioa onartzeko dena.

Osasun Sailak dekretu-proiektua bat prestatu du, Euskadiko Osasun Sisteman pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko deklarazioa onartzeko dena, zeina izapidetzen ari den, izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean araututakoarekin bat etorriaz.

Aipatu lege-xedapeneko aurreikuspenak betetzearren, Osasuneko sailburuak, 2014ko abenduaren 1eko Aginduaz, proiektuari aldez aurretiko onarpena eman dio, betiere testuko artikuluak idatzitakoan.

Aipatu 8/2003 Legearen 8.1 artikuluaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten xedapen orokorrak entzunaldiaren izapidetik pasako dira, eta, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurreko informazioaren izapidetik pasako dira, kasu honetan gertatzen den legez.

Hartarako, Euskadiko Osasun Sisteman pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko deklarazioa onartzen duen dekretu-proiektua jendaurreko informazioaren izapidetik pasatzen da, eta hori egiteko 20 egun balioduneko epea erabiliko da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Azaldutakoagatik, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 195/2013 Dekretuko 6.1 epigrafeak xedatutakoarekin bat etorriaz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Osasun Sisteman pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko deklarazioa onartzen duen dekretu-proiektua jendaurreko informazioaren izapidetik pasatzea, eta horretako 20 egun balioduneko epean erabiliko da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Bigarrena.– Goragoko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten, dekretu-proiektuaren edukia eskura egongo da helbide honetan: Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1, eta, halaber, eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan: Euskadi.net

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 15a.

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.